

Ezaguna denez, 1989. urtean Eusko Legebiltzarreko ordezkari guztien adostasunarekin EAEko lehen naturgunea babesteko Lege berezia onartu zen. Legearen xede nagusia zen eskualdeko gizagintza eta bertako lehen mailako balio naturalak, paisajistikoak eta historiko-kulturalak uztartzea eta elkargarri egitea. Izan ere, aipaturiko balioen *babesarekin* batera *garapen-eredu* berri bat sustatu nahi zen, eta, modu horretan, ingurumenarekiko orekatuago eta gurekiko, gizakiekiko hain zuzen, osasungarriago eta bizigarriago den eskualdea lortu nahi zen. Urdaibaiko garapen sozio-ekonomikorako dokumentuak (PADAS) honela zioen 32-33 orrialdeetan: “...*Biosfera Erreserbarako garapen eredu zehatza finkatu behar da. Marko horrek biztanleon, sektore ekonomikoen eta baliabide naturalen (horiek mantendu nahiz hobetzeko) beharizanean erantzun nahi die. Biosfera Erreserba izatean, Urdaibai leku egokia da jarduketa berritzaileak aplikatzeko eta horiek, gero, Euskal Herriko beste alde batzuetara estrapolatu ahal izateko*”.

Horrela, aukera aproposa zabaldu zen Urdaibain bide berri horretan jarduketa berritzaileak aplikatzeko eta lantzeko, eta horrela gune aitzindaria bilakatzeko. Aukera, nekazaritza eta abeltzaintza kalitatezko bertoko produktuetan eta, bereziki, produktu ekologikoetan sustraitzeko; aukera, beste baso kudeaketa bat egiteko (eta ez, oraindik ere ezagutzen dugun pinu eta eukaliptoaren erabateko nagusitasunean oinarritzen dena); aukera, teknologi parke “berdea” eratzeko eta ingurumenari lotutako sektore ekonomikoa erakartzeko eta indartzeko; aukera, beste garraio mota bati ateak irekitzeko eta oinezkoentzako eremu bereziak, bidegorrien sare zabal bat eta garraio publiko, bereziki tren, erakargarria sustatzeko; aukera, turismo berdea eta iraunkorra lehenesteko; aukera, azken finean, gure eskualdea iraunkortasunaren eredu eta erreferentzia bihurtzeko.

Arrazoi ugari tarteko, proiektu hori bultzatzeko eta garatzeko erakundearen artean behar ziren adostasuna eta indarra ez dira lortu. Gainera, Urdaibaiko biztanlearen parte hartzea erabat sinbolikoa izan da. Izan ere, instituzio guztiak (Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Urdaibaiko udalak) elkarrekin aritu beharrean euren arteko gatazketan odolustu dira, eta eskualdeko biztanleok ez dugu ikusi ilusionatzeko moduko proiekturik ez eta parte hartzeko bide argirik ere. Eta horren guztiaren adierazle argia Urdaibaiko Patronatuaren egoera tamalgarria da.

Izan ere, Urdaibaiko Patronatuaren ahulezia areagotu baino ez den honetan, Patronatuko kide garen edo berari loturiko Lankidetzaren Kontseiluan ordezkaritza dugun giza taldeok honako hau adierazi nahi dugu:

1- Patronatua bere ibilbidearen unerik kezkarrienean dagoela. Alde batetik, zenbait ordezkari politikoren gutxiespen eta oinarri gabeko kritiken ondorioz, eta bestetik, Zuzendari-Artatzailearen hutsune nabariari talde teknikoaren lan egoera iluna gehitu behar zaiolako. Bistan dago, gure ustez, Patronatua, gaur egun, ez dela gai dituen funtzio oinarritzak ere betetzeko, behar-beharrezkoa den ikuskaritza-lan faltak adierazten duen bezala. Horren seinale garbiak dira, adibidez, ugaritzen ari diren lur metaketa ilegalak: Muxikako Etxerrea baserriaren alboan dagoena (hektarea baten ingurukoa) edo Kortezubiko Manika eta Idokiliz inguruetakoa, besteak beste.

2- Oso garrantzitsua dela Urdaibaiko proiektuak behar duen bultzada gidatzeko eskualdean errotuta dagoen Patronatu indartsu baten aldeko apustua egitea, eta, bide horretan, honako neurri hauek hartzea:

- a) 1997an, Urdaibaiko Legea aldatu zenean, instituzioen arteko adostasunetan jasotzen zen moduan (zer dela eta, ez zen gauzatu?) nortasun juridiko propioa aitortzea.
- b) Funtzio ikuskatzaileaz gain ezinbestekoa den funtzio dinamizatzailea bete ahal izateko behar dituen baliabidez hornitzea. Besteak beste, baliabide ekonomikoak, natura zaintzaileen talde propioa eta zuzendari-artatzailearekin batera lan egingo lukeen diziplina anitzeko talde sendoa (beste zenbait eremu natural babestutan dagoen antzekoa, hain zuzen).
- c) Zuzendari-artatzaileari Urdaibaiko Legeak ematen dion funtzio administratzaile osoa ("*Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren arduralaritza*" 20. artikulua) ,ahoz zein egitez , aitortzea, eta funtzio horretarako perfil egokiena duen pertsona aukeratu ahal izateko prozesu zabal, garden eta partehartzailea ahalbidetzea.

Gernika-Lumon, 2008ko ekainaren 27an

Gernikako Ekologi Lan Taldea.....(eta ados dauden gainerako talde guztiak)